

KULTURA, GASTRONOMIA, KIROLAK... BILBAO BASQUE FESTEN



Bilbao Basque Fest Aste Santuan (apirilak 1-4)

Bilboko Udalak bertoko Aste Santuan antolatzen duen Bilbao Basque FEST jaialdiak edizio berri bat aurkeztu du, nobedade azpimarragarriekin: horien artean, aipatzekoa da aurtengo jardunaren zati handi bat *“Euskal Kulturaren Plaza”* deitu zaion gunean zentralizatuko dela, hau da, Areatzako Kaian kokatutako eremu berri batean.

Bilbao basque FESTek, Bilboko Udalak **Aste Santuko** egunetan antolatzen duen euskal kulturaren erakusleaho handiak, edizio honen **programazioa** aurkeztu du gaur; berau **apirilaren 1etik 4ra bitartean** garatuko da, eta berriz ere doakoa izango da, publiko guztientzat diseinatutako jarduerekin.

Erreferentziazko hiri-jaialditzat hartuta, oraingoan bere *“funts benetakoenera”* itzultzeko helburuarekin dator berriro, nobedade azpimarragarriekin eta hiriko hainbat gunetan gauzatuko diren jarduerekin, betiko sei ardatz tematikoetan sailkatuta: Musika, Kultura, Zinema, Market, Gourmet eta Sport.

Bilboko Udalaren Garapen Ekonomiko, Merkataritza, Turismo eta Enplegu Saileko Zinegotzia **Kontxi Claverrek** azaldu duenez, jaialdiaren nobedade garrantzitsuenetako bat da bere eskaintzaren zati handi bat ***“Euskal***

Kulturaren Plaza” deritzan gunean kontzentratuko dela; berau eszenatokia duen espazio berri bat da, **Areatzako Kaian** kokatuko dena eta **edizio honetako epizentro nagusia** izango dena, musika askorekin, Herri Kirolekin eta *showcooking*ak barne hartuko dituzten jarduera gastronomikoekin.

Egitarau osoa